

Iratiko aldaketak 1960 hamarkadatik goiti

E.: azken berrogoita amar urte hauetan hemen Iratin gauzak ainitz kanbiatu dituxu.

B.: ba, ni emen hasi berrian ez zuxun jendeik, guti jiten zuxun, jiten zitxun oianzaiñak, beren itzuli... Bi-iru egun pasten zitxien emen, oian orien kontrolatzen, kusten bazenez noaitek arbolia moztia edo ola, arrainkari zonbait Mendibetik oinez jiten zitxun, ordian, noiztenka, ez zuxun jendeik ordian, artzaiñak bakarrik emen ordian, artzaiñak bakarrik, ordian ez baitzen, oai bezala, oto bideik, oiñez, gero ni jin ondoan, zonbait urte, ni jin nintzan urte hartaik hasi zuxun bide ori, berri ori iten, leenik idoki, ta geo zonbait urtheen buruko gudronatu, ta ola.

E.: mila beatzieun ta hiutan oita hamar inguruan?

B.: ba, olako zeit, ba, ba, ba.

E.: eta bide horrekin otoak abiatu mendian?

B.: ah ba, abiatu ta gero geo ta geio, geo ta geio, ta hola, anitz jende orai, gero ta geio, eta jendek maite ixie mendian kurri ibiltzia, eta mendi kasko oitan anitz, iziarriko moda hasi uxu urtetik urtera gero ta geio, ta denek zakurrekin ta gure ardiak iziazten, gu ortako ez kontent, zakurrek eremaiten txie, ezarria uxu hor ixkiatuik ez dela libor zakur ek laxu, bena horxe partitxen txu extekan ta gero laxatu ta geo mendi oitan ardiak iziazten. Joan den urtian e hor beste ibiltzale atzu ikusi tut, zakurra jin ziexun ardi batekin, tripak zilatiak, orgo ardia espakatzen baitzen, oian orri beeiti, ta hek oiur in ta kendu zuxun zakurra jin zelaik giilea, bena jendek ez xie errespetatzen, gu ez gitxu jenden kontra, bana ez xie errespetatzen, nik errain duana ori uxu.

E.: otoak eta camping car eta azken urte auetan mugimendu ainitz...

B.: ah ba, ba, ori ba.

E.: quad, moto...

B.: orik oai berrikitakoak orik e, ba, ta orik e denek iziazten ardiak mendian, ez txu trankil, ez txu trankil alatzen, ara, emengo modak nola dien.

E.: eta barrage-a hori noiz egin zen?

B.: hor... Badakita nik! Zonbat urthe dien oai, horrendako nik ez xit, ez dut pitsik balio, emen bazuxun artzain bat, ementxe berian, lake unen unateko aldetik, gure mendi koxkor unen onddo-onddoan or, berak ina etxola ak e, eta gero erran zakotelaik barrage-a in bear zutela hor, etxola inen zakotela berri bat, hortik bearko zila joan, ah ua eritu zuxun ordian, hor berak ina, ta bere gustuko lekian baitzen, ez zuten beala erreusitu, errefusatzen, ez zela ortik joain ua, ta gero han, chalet hain ondoan in zakoten, gero egun batez unartu zien. Ordian Michel

Intchauspé baitzen emengo deputatia ta sindikateko presidentia, ta jin zuxun haat, ta eni galdin ziaxun, ta “ordian gizon orrek ez dik deus e intzun nahi, etxolain kentzia”, ta “bai nai dien lekian emaiten badakozie ba, lekia”, ta “bon, nun nai du, nun da gizon ua”, ta behala joan zen ta bere hitzez beraekin arrenjatu zien, ta hala in zuten etxola, berri-berria ukan zien, berri-berria, bere ganbarekin, batu bi-iru, bi-iru ganbara, ta etxola ederra in zakoten, ta ori barreatu, ta olaxe ina da geo lake ori.

E.: eta zendako egin zuten laku ori?

B.: ba hori, eh ni ez dakit, nik ez dakit zendako, bena nik uste jendein, bakantzierren biltzeko jendein nik uste emen.

E.: ez da elektrikarik egiten or?

B.: ez, ez, ez, ez, ori jendeain atiratzeko nik uste. Ez dut bein e jakin, bena ez, ez, ez da jeus e inik ez elektrikaik ez jeus e or.

E.: eta hemen izan dea gasnaren saltzeko ohidurarik, Iratiko eremu huntan?

B.: ba, ni ai izan nuxu hamar urtez han, sindikateko chalet-a baita, hor, hortan ai izan nuxu hamar urtez gasna saltzen, hor itzuli, Artxilondo ta itzuli oitako artzain guziek kartzen zuzten or, bo, artzain guziek edo parte batek, seurik, gasnak horrat, ta hor saltzen, emen Zurtzaikoek-eta, Zurtzaikoek eta bi etxek iten baitzuten gasna ordian hor, mile neuf cent soixante dix-etik eta mile neuf cent quatre vingt artio, hamar urtez, ta geo or gaiñan baitzen apartamendia, ganbarak eta sukaldiak eta zerak, eta ni beereko zolan nintxun, gasnategia in zuten or, eta gaiñean oianetan ai zien Barkoxekoak senar-emazte atzu, eta suiaen piztian, ezantza, bi pintako ezantza zerekin hasi zen suia in pizteko emaiten txurrustan, ta blaf lotu zakon suia, ta hua esku han berian utzi balu, han berian erreko zien xamindeitik ezantza ua in artio, kanpoat ereman du, untsa iteko, besoak eta denak erre, ta kanpoa bota du ua, bena artian barnian ezantza ixurtzen, ixurtzian sutan ixurtzen duxu, ta han dena ranp su lotu zen suia. Geo or nunbaitik telefonatuik ponpierrerr, ta Salbatoren ta lanaa, ek, berriz, bidian ta ezin jinez eman zuten denbora, ta artian dena kramatu. Bazen oono, ori sasoin azkena baitzen, oai bezala-edo, bazen... Laatan oita hamar bat gasna bazien, batzu bestenak gelditzen zienak ono beerian, ta hek kontserbatu zien hourdis baitzen, eskuaraz nola erten da? Plafon artan ez zen suia beeiti pasatu, gasnak kontserbatu zien, bena gaiña dena erre. Horien anbeste gauza bazen, emazte orren... Emazte ori bi aur ttipiekin baitzen hor, hain eskuko zakiak eta denak, han ez zen deus e salbatu ahal ukan, dena hartu zien suak, denak erre gaiñean. Ponpierrak orrat orduko aantxu erria zen dena.

E.: eta geroztik ez da gehiago gasnaik-eta saldu leku ortan?

B.: ez, ez, ez, ez.

E.: fini izan da ixtorioa.

B.: artan gelditu zen geo, artan, hartan.

E.: eta gero, artzain bakotxak bere etxolan atxikitzen zuen gasna?

B.: ba, ba, ta gero etxeat eremaiten, edo saltzen emen etxolatik, edo etxean, beerian bazuzten
klientak erosteko, ta ola, ba.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen kariatara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala